



**Alaiki**

*kultur zerbitzu eta ekipamenduak  
servicios y equipamientos culturales*



**KULTUR ZERBITZU eta EKIPIAMENDUAK**  
**SERVICIOS Y EQUIPAMIENTOS CULTURALES**



## *lan metodologia* *metodologia*

Eskaintza soziokulturalaren kalitate eta kantitatearekiko eskakizun maila gero eta handiagoa da gure udalerrietan. Herritarrek euren beharren araberako kultur ekipamendu eta zerbitzuak eskatzen dituzte, gaurko gizarteak bizi kalitate eta garapen komunitarioaren adierazle diren hauek gero eta gehiago baloratzen baititu.

**Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailak** duen lan filosofia eta bezeroaren beharrak kontutan hartuz, garatu beharreko proiektuaren ezaugarriei eta helburuei buruzko informazio guztia bilatu eta aztertzen du, honela sustatzailearen eskakizunetara ahalik eta hoberen moldatzea ziurtatu ahal izateko.

Eskatu, beldur barik, gure zerbitzuak eta aurrera eraman nahi duzun edozein ekimen, ideia edo zerbitzutarako aholkularitza.

El nivel de exigencia respecto a la calidad y cantidad de la oferta sociocultural en nuestros municipios es cada vez mayor. Los ciudadanos y ciudadanas demandan equipamientos y servicios culturales acordes con sus necesidades, en una sociedad que cada vez valora más éstos como indicadores de calidad de vida y de desarrollo comunitario.

**Alaiki servicios y equipamientos culturales**, por su filosofía de trabajo y partiendo de las necesidades de su clientela, realiza una labor previa de estudio y búsqueda de información de las características y objetivos del proyecto a desarrollar, de manera que se pueda asegurar la mayor adaptación posible a las demandas del promotor o promotora.

No dude en solicitar nuestros servicios y pedir asesoramiento sobre la iniciativa, idea o servicio que pretenda llevar a cabo.





## **ZERBITZUAK** **SERVICIOS**

Gizarteak gero eta kultur ekipamendu eta zerbitzu gehiago eskatzen ditu eta **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean** prest gaude beharrian horiek asetzeko. Izan ere, kolektibo ezberdinentzat proiektu mota ugari sortzen eta kudeatzen esperientzia zabala duen gizon-emakumezko lan talde handia eta iaioa dugu.

En **Alaiki servicios y equipamientos culturales** estamos preparados para dar cobertura a la creciente necesidad que tiene la sociedad de una mayor demanda de equipamientos y servicios culturales. Todo esto lo conseguimos a través de un amplio y cualificado grupo humano con experiencia en la puesta en marcha y gestión de una gran variedad de proyectos.



## KOMUNITATE EKIPAMENDUAK

Biztanleria orokorrari zuzendutako ekipamenduak eta zerbitzuak dira, bere garapen giza-kulturala eta bere dinamizazioan laguntzen dutenak.



### Museoak eta Interpretazio Zentroak

Euskadin eta gure inguru hurbilenean gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zaie honelako zentroi, kultura eta ezagutza gune izan ezezik gizartearen eta ekonomiaren hazkunde aukerak ere badirelako. **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailetik** ekipamendu hauek kokatzen diren inguruaren garapena bultzatu behar duen tresnatzat jotzen dugu eta horien bitartez gaiaren edota tokiaren ahalmenak eta baliabideak elkartu, antolatu, eskaini eta ezagutaraz.

## EQUIPAMIENTOS COMUNITARIOS

Son aquellos equipamientos y servicios, dirigidos a la población en general, que contribuyen a su propia dinamización y al progreso sociocultural.

### Museos y Centros de Interpretación

En Euskadi y en nuestro entorno más cercano se ha empezado a descubrir la importancia de estos centros como generadores, no solo de cultura o conocimiento, sino de oportunidades de crecimiento económico y social. Desde **Alaiki servicios y equipamientos culturales** planteamos estos equipamientos como instrumentos que deben potenciar el desarrollo del entorno en el que se hallan y a través de los cuales se unan, organicen, oferten y den a conocer las potencialidades y recursos del lugar o tema tratado.



### Dokumentazio Zentroak

Gizarte-interesa duten informazio ezberdinen topaketa, ikerketa, bilketa, antolaketa, hedapen eta mantentze-lanetan aritzen diren zentroi deritzegu, era askotariko gai (kultura, kirola, gazteria, orokorra...) jorra dezaketelarik.

### Centros de Documentación

Entendemos estos servicios como centros dedicados a la búsqueda, investigación, recopilación, organización, mantenimiento y difusión de determinada información de interés social, pudiendo corresponder a temáticas varias (temas generales, cultura, deporte, juventud...).



### Dinamizazioa eta Kultur Kudeaketa

Biztanle asko duten herrietan zein erakunde handietan bereak diren animatzaile eta teknikariak honelako lanetan jarduten badira ere, sarritan benetan dauden beharrei erantzuteko langile hauek ez direla nahiko ikusi izan dugu. **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean** kanpoko zerbitzu integralak eskaintzen ditugu (edonolako kultur ekitaldiren proposamena, programaketa, antolaketa eta hedapena) eta bezeroaren eskakizunetara bizitasun, balioaniztasun eta ordutegiaren aldetik egokitzen direlarik.

### Dinamización y Gestión Cultural

Siendo estas funciones desarrolladas por animadores y animadoras o personal técnico de la propia entidad, sobre todo en grandes instituciones o municipios, nos encontramos muchos casos en los que este personal resulta insuficiente. En **Alaiki servicios y equipamientos culturales** ofrecemos, unos servicios externos integrales (propuesta, programación, organización, difusión y desarrollo de cualquier tipo de acto cultural) y que se pueden adaptar en cuanto a horario, dinamismo y polivalencia a las necesidades del cliente.



### **Kultur Etxeak eta Gizarte-Etxeak**

Zentro hauentzat kanpoko kudeaketa ereduren bat aukeratzen duten Erakundeei, hauen funtzionamenduaren ardura osoa gure gain hartzea eskaintzen diegu edota ematen dituzten zerbitzu batzuen soilik.

### **Casas de Cultura y Centros Cívicos**

Para las Instituciones que optan por un modelo de gestión externa de estos centros, ofrecemos la posibilidad de asumir íntegramente el funcionamiento de éstos, o bien parcialmente de algunos de los servicios ofrecidos.



### **Tailerrak**

Tailer didaktiko espezializatuei buruz ari gara: giza talde jakin bati zuzenduak (gazteak, emakumeak jubilatuak...), ekipamendu edo gai zehatz bati buruzkoak (museo edo interpretazio zentroentzako tailerrak, kontsumokoak, berdintasunerako tailerrak...) baita bestelakoak ere (artisautza, eskulangintza ikastaroak).

### **Talleres**

Nos referimos a talleres didácticos especializados y relacionados con un colectivo concreto (jóvenes, mujeres, jubilados...), con un equipamiento o tema determinado (talleres para un Museo o Centro de Interpretación, talleres de consumo, talleres de igualdad...), o bien otros tipos (talleres-cursos de manualidades, artesanía...).



### **Antzokiak, Zine Aretoak eta Kafe Antzokiak (Kultur Aretoak)**

Sortu berri diren kafe-antzokien eta ikuskizun areto publikoen kudeaketa mota berriei eraginkortasunez erantzuteko beharrea gaude. Abagune honen aurrean, kultur ekipamendu hauentzako programazio eta antolaketa metodo modernoak proposatzen ditugu.

### **Teatros, Cines y Café-Teatros (Aulas de Cultura)**

Estamos en la necesidad de responder con eficiencia a las nuevas formas de gestión de locales públicos de espectáculos, así como a los nuevos fenómenos emergentes de los Café-teatros. Ante esta coyuntura, proponemos unos modernos métodos de organización y programación en estos equipamientos culturales.



### **Erakusketen Antolaketa**

Pertsonaia edota gai jakin bati buruzko erakusketa baten diseinuak, garatu beharreko lan eta alde guztien ezagutza sakona eta espezializazio handia behar du baita parte hartzaile guztiena ere. **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean** erakusketen antolaketa osoak suposatzen duen prozesu korapilatsu honetan gure eskarmentu eta ezagutza osoa zure esku jartzen dugu, baita gure lan egiteko modua ere, elkarreragina, originaltasuna eta sormena bereziki zainduz.

### **Organización de Exposiciones**

El diseño de una exposición sobre un personaje o tema concreto requiere de una amplia especialización y de un profundo conocimiento de todas las fases y labores a desarrollar, así como de los y las agentes implicados en éstas. En **Alaiki servicios y equipamientos culturales** ponemos a su disposición nuestra experiencia y conocimiento sobre este complejo proceso de la organización de una exposición en todos sus estadios, así como nuestra forma de trabajo, que pasa por cuidar especialmente los aspectos de originalidad, creatividad e interactividad.

## UMEAK

Umeei zuzendutako ekipamendu eta zerbitzu ludiko-hezigarriak, balore positiboak oinarritzat hartuz haurren hazkuntza eta nortasunaren osaketa lortu nahi delarik.



### Ludotekak

Jolas edota jostailuen bitartez, astialdian umeen heziketa-garapena ahalbidetzen duten esparruei deritzegu, haurren nortasuna osatu ahal izateko, jarrera eta balore positiboak sustatuz.

## INFANTIL

Nos referimos a los equipamientos y servicios de carácter lúdico-educativo dirigidos a población infantil, que buscan el crecimiento y formación de la personalidad del niño y niña en base a valores positivos.

### Ludotecas

Nos referimos a espacios en los que, a través del juego y del juguete, se posibilita el desarrollo educativo de los niños y niñas en su tiempo libre, potenciando valores y comportamientos positivos que vayan conformando su personalidad.



### Hezkuntza Proiektuak Eskola-Umeekin (Hiri / Herri Hezitzailea)

“Hiri Hezitzaile” mugimenduak biztanleek bere ingurua (herri, hiri, auzoa) hobeto ezagutzea du helburu, nortasuna, konpromisoa eta talde izana indartu ahal izateko, zenbait ekintzaren bidez (interés historikoa edo soziala duten tokietara bisitak, tailerrak, aurkikuntza-ekintzak...). Interés handiko esperientzia bada ere, gure inguruan ez dago oso hedatua, esan dezakegu, beraz, **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu saila** dela gaur egun Euskadin, programa mota hauen aintzindari eta erreferentea.

### Proyectos Educativos con Escolares (Ciudad Educativa)

El movimiento de “Ciudad Educativa” responde a un objetivo de propiciar que los ciudadanos y ciudadanas conozcan mejor su medio (municipio, barrio, ciudad) como forma de potenciar aspectos de identidad, compromiso y colectividad, a través de diversas acciones (visitas a lugares de interés histórico o social, talleres, actividades de descubrimiento...). Siendo una experiencia de un gran interés, está todavía poco extendida en nuestro entorno, pudiendo señalar que **Alaiki servicios equipamientos culturales** es en Euskadi una entidad referente y pionera en este tipo de programas.



### Irakurketa Suspertzeko Proiektua

Ekintza edo programa hauen bidez, gazte eta umeengan irakurketa ohiturak sortu nahi dira, baita liburutegietako antolaketa, zerbitzu eta egituren ezagutza ere. Arlo honetan **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailatik** programa berritzaile ugari lantzen jardun dugu.

### Proyectos de Animación a la Lectura

Actividades o programas con los que se pretende tanto la creación de hábitos de lectura entre los jóvenes y los niños y niñas, como el conocimiento de las estructuras, servicios y organización de las bibliotecas. Desde **Alaiki servicios equipamientos culturales** hemos venido trabajando innovadores programas en este campo.





### **Ingurugiro Hezkuntza**

Ingurugiroarekiko ezagutza eta jarrera txikitatik lantzeko beharrari erantzuten dio. Horretarako neurria egindako programak eskaintzen ditugu, gehien landu nahi diren esparru edota taldeen interesen arabera.

### **Educación Medio-Ambiental**

Responde a la necesidad de trabajar desde edad temprana las cuestiones relacionadas con el conocimiento y actitud ante el medio ambiente. Para ello ofertamos programas hechos a medida, en función de los aspectos o colectivos con los que más interés trabajar.



### **Programa Espezialduak**

Umeei zuzenduta dauden tipologia eta gai askotariko programa ludiko-hezigarrien diseinatze, gauzatze eta kudeatze lanari deritzogu.

### **Programas Especializados**

En general nos referimos al diseño, realización y gestión de programas lúdico-educativos que, desde distintas tipologías y temáticas, están enfocados al colectivo infantil.



## GAZTEAK

Hain heterogeneoak diren gazte-taldeei zuzendutako hainbat ekipamendu, zerbitzu eta programa dira. Gazteen integrazio soziala eta errealizazioa lortu nahi da, baita euren beharren eta gabezien konponbidean parte hartze zuzena ere.



### Gaztelekuak

Jabetza publikoa duten lokalak dira, ekintza eta zerbitzu eskaintza ugarien bitartez, gazteek dituzten harreman eta elkartzeko guneak aurkitzeko beharrari erantzun nahi diona. Gaztetxoko izenaz ere ezagunak, **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean**, zentro hauek tokiko topaleku izan ez ezik, gazteen beren ekimenen sorleku badirela ere ulertzen dugu, euren garapenean laguntzen dutelarik.

## JUVENTUD

Se trata de los equipamientos, servicios y programas varios dirigidos al heterogéneo colectivo juvenil. Con ellos se persigue la realización e integración social de los y las jóvenes, así como su implicación en la solución de sus carencias y necesidades.

### Gaztelekus

Son locales de titularidad pública con una oferta de servicios y actividades que quieren responder a la necesidad de buscar espacios de encuentro y relación del colectivo juvenil. También llamados Gaztetxokos, en **Alaiki servicios y equipamientos culturales** entendemos estos centros como locales, no sólo de encuentro, sino de generación de iniciativas que surjan de las y los propios jóvenes, contribuyendo a su crecimiento.



### Gazte Informazio eta Dinamizatorako Bulegoak

Jabetza publikoa duten zentro hauetan, gazteentzat interesgarri izan daitezkeen arloei buruzko informazioa (lana, trebakuntza, aisia, etxebizitzak eta abarrei buruzkoa) euren eskura jartzen da, modu zabal eta errazean. **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean** ekipamendu hauei honela deritzegu zeren eta, gaur egungo joerekin bat etorruta, zentro hauek informazioa eskuratzeko tokia izan ez ezik gazte-taldeen dinamizazioa lortzeko zentroak ere izan behar bailukete, gure ustetan.

### Oficinas de Información y Dinamización Juvenil

Centros de titularidad pública en los que se pone a disposición de los y las jóvenes información sobre sus principales áreas de interés (empleo, formación, ocio, vivienda...), de una manera abierta y accesible. En **Alaiki servicios y equipamientos culturales** denominamos así a estos equipamientos porque, en consonancia con las últimas tendencias, entendemos estos centros no sólo como meros espacios donde recibir información, sino también como centros dinamizadores del colectivo juvenil que, a nuestro juicio, deben ser.



### Programa Espezialduak

Gazteei zuzenduta dauden tipologia eta gai askotariko programa ludiko-hezigarrien diseinatze, gauzatze eta kudeatze lanari deritzogu.

### Programas Especializados

En general nos referimos al diseño, realización y gestión de programas lúdico-educativos que, desde distintas tipologías y temáticas, están enfocados a la población juvenil.



### **Gazte Planak**

Udaletako Gazte Planak, Eusko Jaurlaritzak egindako EAE-ren Gazte Planetik sortutakoak dira. Zeharkako eta diziplina anitzeko plan estrategikoak dira, gazteen bizitzan eragina eta interesa duten gai guztiak bere baitan hartu nahi dituztenak, bost arlotan bilduz (etxebizitza, lana, trebakuntza, aisia eta osasuna). Honekin guztiarekin, botere publikoei zenbait orientabide ematen zaizkie, beren gazteentzako politikek nondik norakoak izan behar duten ezagutarazteko.

**Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean**, Gazte Planen garapenean dugun esperientziaren aldetik, plan estrategiko hau fase ezberdinetan antolatzen dugu: gazteriaren errealitatearen diagnostikoa, gazteentzako ekipamenduen eta programen diagnostikoa, bidegarritasunaren azterlana, planaren programak eta ekintzak zehaztea, plana ezartzea, burututako ekintzak martxan jartzea, jarraipen lana eta ebaluaketa. Honetaz gain, zeharkako mailan, planaren komunikazio planak garatzen ditugu, baita martxan jarritako ekintzen aholkularitza eta dinamizazioa ere.

### **Gazte Planak (Planes Jóvenes)**

Los Planes Jóvenes o Gazte Planak municipales surgen desde el Gazte Plana de la C.A.P.V. realizado por el Gobierno Vasco. Se constituyen en unos planes estratégicos de carácter transversal y multidisciplinar que pretenden abarcar desde cinco áreas (vivienda, empleo, formación, ocio y salud) todas las cuestiones de interés e influencia en la vida del colectivo joven. Con ello se pretende dar unas orientaciones a los poderes públicos de por donde deben guiar sus políticas juveniles.

En **Alaiki servicios y equipamientos culturales**, desde nuestra experiencia en el desarrollo de los Gazte Planak, planteamos la elaboración de este plan estratégico desde el trabajo en distintas fases: diagnóstico de la realidad juvenil, diagnóstico de equipamientos y programas en materia de juventud, estudios de viabilidad del plan, definición de programas y acciones del plan, implantación del plan, puesta en marcha de las acciones contempladas, seguimiento y evaluación. Desarrollamos también, a nivel transversal, planes de comunicación del plan, así como labores de consultoría y dinamización de la puesta en marcha de las acciones del mismo.



## AHOLKULARITZA ETA TREBAKUNTZA

Programa edota plan espezializatuagoak dira eta metodologiaren aldetik ere, zainduagoak eta sakonagoak. Biztanleria guztiarentzat izan daitezke eta bereziki erabiltzaile-bezeroen orientabide eta trebakuntzara zuzenduta daude.



### Plan Estrategikoak eta Plan Gidariak

Ekipamendu eta zerbitzu giza kulturalen martxan jartze eta kudeaketa lanetan, gero eta handiagoa da eraginkortasun eta eskakizun maila. Honek guztiak, maila goreneko plan espezializatuak gauzatzea dakar, erakunde publiko zein pribatuentzako gida izan dadin. **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean** gure gizon eta emakumeen lantalde trebe eta eraginkorra zuen eskura jartzen dugu eta, bai plan hauen, bai aztertzeko diren hainbat ekipamendu eta zerbitzuren garapenean, gure eskarmentu teoriko-praktikoa.

## CONSULTORÍA Y FORMACIÓN

Son aquellos programas o planes de un cariz más especializado y una metodología más depurada y profunda. Pueden estar destinados a la población en general y principalmente a la formación y orientación del las y los usuarios-clientes.

### Planes Estratégicos y Planes Directores

Son cada vez mayores los niveles de exigencia y de eficacia demandados en la gestión y puesta en marcha de los equipamientos y servicios socioculturales. Esto conlleva la necesidad de realizar planes con un alto grado de especialización que guíen la actuación de las entidades públicas y privadas. En **Alaiki servicios y equipamientos culturales** ponemos a su disposición nuestro eficaz equipo humano y nuestra experiencia teórica y práctica en el desarrollo, tanto de estos planes, como de los distintos equipamientos y servicios a analizar.



### Tresna eta Eskuliburu Prestakuntza

Akordio estrategikoak ditugun beste erakunde batzuekin batera, **Alaiki kultur zerbitzu eta ekipamendu sailean**, eguneroko lanean, eta esparru kulturalaren barruan, sarrien eskatzen diren edonolako ikerlan, tresna eta eskuliburu prestatzeko baliabideak ditugu.

### Elaboración de Herramientas y Manuales

En coordinación con otras entidades con las que tenemos acuerdos estratégicos, desde **Alaiki servicios y equipamientos culturales** posibilitamos la realización de todo tipo de estudios, herramientas y manuales que, dentro del ámbito cultural, con más frecuencia se demandan en el trabajo diario.



### **Arlo Soziokulturaleko Trebakuntza Ikastaro Espezializatuak**

Hedatzen diharduen kulturaren merkatuan trebakuntzarako eskaintza, eskatzen dena baino murriztagoa dela ondotxo dakigu. Horrexegatik, eta arlo soziokulturalean, trebakuntzarako ekintza eta ikastaro espezializatuak zure esku jartzen ditugu, laneko errealitateari atxikiz eta bizipen modura antolatuz.

### **Cursos de Formación Especializada en el Ambito Sociocultural**

Somos conscientes de que, en un mercado en expansión como el de la cultura, existe una demanda de formación que, en ocasiones, va por delante de la oferta. Por ello, posibilitamos la realización de actividades y cursos formativos especializados en el ámbito sociocultural, planteandolos siempre de un modo vivencial y aplicados a la realidad profesional.



### **Material eta Gida Didaktikoen Prestaketa**

Gida didaktikoak eta bestelako hezkuntzarako materiala sortzen duen lantalde pedagogikoa dugu, hainbat ekipamendu eta zerbitzurekin harremanak izaten eta kudeatzen dituztenak (museoak, gaztelekuak, ludotekak, interpretazio zentroak...).

### **Elaboración de Materiales y Guías Didácticas**

Disponemos de un equipo pedagógico responsable de la creación de guías didácticas y de otros materiales educativos en general, relacionados con los distintos equipamientos y servicios que gestiona (museos, gaztelekuak, ludotekas, Centros de Interpretación...).



## *egindako lanak* *trabajos realizados*

Ekipamendu eta kultur zerbitzuen arloan, urteetan zehar lortu dugun esperientziak, neurri ezberdineko proiektuetan parte hartzeko aukera eman digu.

Nuestros años de experiencia nos han permitido participar en proyectos de muy distinta envergadura, dentro del área de equipamientos y servicios culturales.





Igeltzeraren Enpresa Parkea  
Barrikako Bidea 2. D4 Pabilioia  
48610 Urduliz (Bizkaia)  
Telefonoa: 94 676 70 80  
Faxa: 94 676 63 59

[www.alaiki.net](http://www.alaiki.net)